

## **MU eta ITP lankidetzaren bidezko ikerketa hitzarmena sinatu dute**

2013/05/24

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa eta ITP (Industria de Turbo Propulsores) enpresak aurrerapauso bat eman dute duela hamar urtetik hona egiten duten lankidetzaren bidean, eta lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute gaur. Horren bidez, Eskola Politeknikoa ITPren aliatu estrategikoa izango da. Hitzarmenaren ondorio praktikoa izango da bi aldeen arteko ikerkuntza-programa koordinatuak abian jartzea, materialen eta horien eraldaketa-prozesuen arloan. Hala, enpresaren fabrikazio-prozesuak eraginkorragoak izango dira, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren instalazioetan egingo diren industria aurreko saiotei esker. Hitzarmenaren indarraldia bost urtekoa izango da hasiera batean, baina luzatzeko aukera zabalik utzi dute. Fakultateko zuzendari Javier Atxak eta ITPko Ingeniaritza eta Teknologia alorreko zuzendari Jose Ignacio Urizarrek sinatu dute hitzarmena gaur, Mondragon Unibertsitateko instalazioetan. Hitzarmenaren azken helburua produkzio-baliabideak optimizatzea eta horietan ezarritako aldaketaren arriskuak gutxitzea da.

### **Krisialditik kanpo**

Sektoreak darabiltzan egungo datuen eta aurreikuspenen arabera, aeronautikako azpiegituren eta materialen eskaria handia izango da datozen urteetan. Hori dela eta, hitzarmenak berebiziko garrantzia du une hauetan; izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioz industria-sektore gehienak kinka larrian dauden bitartean, aeronautika-sektoreak krisialdiaren eraginaz kanpo jarraitzen du. Beraz, hitzarmenaren beste helburu bat egoera horretaz eta sektorearen hazkundeaz baliatzea da, bazkide estrategikoekin egindako aliantzen bidez, sektorean ikerkuntza, analisia eta sustapena bultzatzeko eta jardura indartzeko.

Hitzarmenaren ondorioz, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa ITPko etorkizuneko ikertzaileak prestatu eta trebatzeko ardura izango du. Aldi berean, hitzarmenaren bidez, bi entitateek handitu egingo dute beren gaitasun teknologikoa, I+G alorrerako Europako, estatuko edo eskualdeko laguntzak eskuratzeko deialdi eta proiektuetan parte hartuz.

Halaber, hitzarmenak oinarritzko ikerkuntzako proiektuak eta ikerkuntza aplikatukoak sustatuko ditu, bi aldeek prestakuntzari lotutako ikastaro, mintegi eta jardunaldiak antolatuko dituzte eta, azkenik, doktorego-tesiak egiteko elkarlanean jardungo dute.

Hala behar badu, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa gas-turbinetan ikertzeko berariazko espazio bat atonduko du bere instalazioetan. Hitzarmenak goi-mailako laborategiak sortzeko helburua ere aurreikusten du, epe luzeagoan. Laborategi horiek 1:1 eskalako ekipo eta azpiegiturez hornituta egongo dira eta, horietan, probak egin, prozesuak doitu eta produktibitateak eta prozesuek azalaren osotasunean eragindako inpaktuak ebaluatuko dira, abian jarri aurretik. Azken helburua, esan bezala, produkzio-baliabideak optimizatzea eta horietan ezarritako aldaketaren arriskuak gutxitzea da.



Hitzarmen sinadura